

1. Koaderno: Testuinguruaren analisia



[Peru]

**Tokiko garapena batera
eraikitzeko herritarren parte
hartzea**

Sarrera

Peruko leku zoragarri batera hurbilduko zaitugu. Han, badira 20 urte bi erakunde –Peruko Hegoaldeko Caritasen Sarea eta Getxoko Zabalketa– bertako herritarrekin bat eginik lanean ari direla tokiko garapen inklusiboan, ekitatiboan eta iraunkorrean oinarritutako garapen eredua eraikitzeke.

Aurrerapausoak egin ditugu bide horretan, eta jarraian aurkeztuko dizkizugu topatu ditugun indarguneak eta ahuleziak.

Kokapen geografikoa, klima eta bertara iristeko bideak

Cuscoko Departamentuan gaude, Peruko Ande mendietako hegoaldeko eskualdean. Gutxi gorabehera 72 mila kilometro koadro hartzen ditu lurralde honek (Euskal Herria halako 10 baino gehixeago), eta itsas mailatik gora 2.000 eta 5.000 metro bitartean dago. Klima hotza eta lehorra da maiatzetik abendura arte, eta euritsua urtariletik apirilera arte. Hiriburuan 12° Z-koa da batez besteko tenperatura, gutxi gorabehera 18° Z-koa izaten da tenperatura altuena eta 4° Z-koa baxuena.

3 barrutitara mugatzen da lan honen eremua: Acopiara eta Sangararara (Acomayo probintzian), eta Checakupera (Canchis probintzian). 3 barruti horietan gutxi gorabehera 11.680 lagun bizi dira (% 51 emakumeak), gutxi gorabehera 3.000 familian; landa eremuko 26 komunitatetan daude antolatuta (5 Sangararan, 16 Checacupen eta beste 5 Acopian).

1. taula: Komunitateen kopurua barruti bakoitzean			
Probintzia	Barrutia	Barrutiko hiriburua	Barruti bakoitzeko komunitateen kopurua
Acomayo	Acopía	Acopía	5
	Sangarará	Sangarará	5
Canchis	Checacupe	Checacupe	16



Hiru barruti horientzat Cusco da elkarren arteko lotunea eta hiri nagusia, 3 barrutietako hiriburuetatik iritsi daiteke bertaraino Carretera Interoceánica izeneko errepidearen bidez. Hala eta guztiz ere, irisgarritasun hori ez da horren egokia komunitate guztietan, errepide batzuk asfaltatu gabe daudelako edo kontserbazio egoera kaskarrean.

3 barruti horietako barne egituraketari dagokionez, balekoa da komunitateen arteko eta barrutiko hiriburuarekiko komunikazioa, baina komunitateak elkarren artean lotzen dituzten bideak asfaltatu gabeak dira eskuarki.

Bide horiek kalteak jasaten dituzte euri sasoian (azaro eta apiril bitartean), lur eta harri jauziak nozitzen dituzte, eta lokatzak hartzen ditu zaldiz ibiltzeko bideak.

1 Barrutia: Udala eta Tokiko Gobernu bat eta bera partekatzen duten komunitateen taldea.



Hainbat komunitateren paisaia (Jon Bittor del Campo)

Oso-oso gorabeheratsua da lurraldeko topografia, muinoak, arroilak, haranak eta mesetak edo goi ordokiak daude; paisaia osatzen duten elementu horiek gertaera geologiko sorta baten emaitza dira, Ande mendien eboluzioan zehar jazo ziren halakoak.

Natur baliabideak

Esku hartutako eremuan lurren % 40 egokiak dira laboreentzako eta larreentzako, gainerako lurrak egokiak dira basogintzarako, eta babesteko lur eremu gisa ere erabiltzen dira. Laboreen artean honako hauek dira nagusiak: patata, ullucus-a, oxalis-a, baba, zalkea eta garagarra.


Azken urteotan jarraian adieraziko ditugun hiru faktore hauek ari dira lur horiek hondatzen: ongarrien erabilera, gain ustiapena eta higadura hidrikoa landare geruza ez dagoelako eta basoak soilten ari

direlako. Gainera, gero eta eragin handiagoa du klima aldaketak: euri gutxiago, lehorte sasoi gehiago eta izotzaldi gehiago.

Faktore horien guztien ondorioz pixkanaka galtzen ari dira lur emankorrak, eta lur horien balio ekonomikoa oso handia da inguru honetako nekazari familientzat, nagusiki abeltzaintza eta laborantza baitituzte bizibide.

Ur iturri mota asko daude 3 barrutietan: ibaiak, aintzirak eta iturburuak. Badira baliabide horiekin lotu daitezkeen arazo batzuk; esate baterako, emariak nabarmen txikitzen dira agorraldian, liskarrak gertatzen dira ur iturri berak partekatzen dituzten komunitateen artean, eta azkenik, gabezia batzuk dauzka nola etxeetan hala nekazaritzan erabiltzeko ur kudeaketak.

Gizakien kontsumorako urari dagokionez, kalitatearen alorrekoak dira arazoak, ur horrek ez baitu kloratzeko tratamendu egokirik jasotzen; gainera, ur hori lortzeko



Adobezko adreiluekin eraikitako etxeak (Zabalketa)

mugak daude, ez baitago etxeetaraino banatzeko eta biltegitratzeko nahikoa azpiegiturarik.

Abeltzaintzaren eta nekazaritzaren ekoizpenarekin lotutako ur arazoei dagokienez, esan dezagun alde batetik batik bat uholde sistemaren bidez ureztatzen direla lurrak, eta ondorioz, alferrik galtzen dela ura eta lurra higatu egiten dela. Azken hiru urteetan ihintzatzearen bidezko sistemen erabilera bultzatu da, baina familiak ez daude halakoak erabiltzeko behar bezain prestatuta, ez dituzte erabili nahi, uholdearen bidezko ureztatze sistemak baino lan handiagoa eskatzen baitu. Gainera, ureztapen sistemetako azpiegiturak egoera kaskarrean daude ez dituztelako behar bezala mantendu. Bestalde, ureztapen batzordeek eta herri zuzendaritza batzordeek, uraren erabilera egokia sustatzeaz eta gainbegiratzeaz arduratzen direnek, ez dute horretarako behar beste gaitasunik, ez dute alkatetzaren laguntzarik jasotzen eta ez dago koordinazio egokirik arrien esparruan baliabide hidrikoen kudeaketa egokiaren zaintza arduratzen den Uraren Tokiko Agintaritzarekin (*Autoridad Local del Agua, ALA*) (nazio mailakoa).

Hondakin solidoei ematen zaien okerreko kudeaketa da ingurumen mailako beste arazo bat. Hondakin horiek etxeko jardueretatik eta ekoizpen, merkataritza eta erakunde jardueretatik etorriak dira. Alde batetik, komunitateetan soilik kale nagusiak garbitzen dituzte bi edo hiru astean behin, emakumeen eta ikastetxeetako ikasleek eramaten dituzte burura lan horiek. Komunitate guztietan botadero (zabortegi) deituetara (haize zabalean gehien-gehienak) eramaten dituzte zaborrak; halakoak herrixketatik kanpora antolatzen dira, edo komunitatearen mugan, batzuk ibai eta aintziretatik hurbil. Zabortegi horietara botatzen duten zaborrari ez zaio inolako tratamendurik ematen. Gainera oso errotuta dago zaborra larreetan, bideetan, ibaietan eta errekaetara botatzeko ohitura. Komunitate batzuetan kolore desberdinetako ontzi batzuk jarri dira zaborra horietan uzteko eta hondakinak bereizteko; hala eta guztiz ere, bertako biztanleak ez daude behar bezain sentsibilizaturik eta prestatuak ontzi horiek era egokian erabiltzeko.

Zerbitzuak: etxebizitza, hezkuntza, osasuna, garraioa eta telekomunikazioak

Adobez eginak dira inguru honetako **etxebizitza** gehien-gehienak, eskuarki familiako kideen laguntzarekin eraiki ohi dituzte. Hiriguneetan baizik ez dira zementuz eta adreiluz eraikitako etxe batzuk, eta etxe horien artean soilik kale nagusietakoak daude uraz horniturik, soilik etxe horiek dute hobi septiko orokor batekin uztartzen duten hustubidea. Baina komunitateetan bizi diren familiek zuzenean hartzen dute ura iturburuetatik eta ibaietatik, eta komun xume batzuk baizik ez dituzte saneamendu gisa. Argindar zerbitzuari dagokionez, etxe gehien-gehienek dute argindarra, baita urruneko lekuetan daudenek ere.

Herritarren heziketa mailari dagokionez, handia da helduen analfabetismo tasa, % 25koa gizonen artean eta % 38koa emakumeen artean. Datu horiek aldatzen ari dira arian-arian, gaur egun haurren ia % 100a ari



Neskatoak boleibolea jolasten ikastetxeko patioan (Zabalketa)

baitira hasierako, lehen eta bigarren hezkuntzako ikasketak egiten.

3 barrutietako komunitate gehienetan badira hasierako eta lehen hezkuntza emateko ikastetxeak; bigarren hezkuntzari dagokionez, 7 herri ikastetxe daude hirigune populatu eta urbanizatuenera (2 Acopian, 3 Sangararan eta 2 Checacupen). Gainera, hasierako, lehen eta bigarren hezkuntzari emandako ikastetxe erlijioso pribatu bat dago Acopian. Bestalde, 4 urtetik beherako haurrei arreta emateko “Cuna Más” programa dago txertatuta hiru barrutietan.

Baina oso kalitate eskasekoa da irakaskuntza, irakasleen ez etorriak ugari direlako eta beren prestakuntza eguneratu gabe dagoelako. Gainera, irakasten diren edukiak ez daude nekazarien errealitatera egokiturik, ez eta hezkuntzaren errealitatera ere; izan ere, familia gehienek batez ere kitxua erabiltzen dute, eta ikastetxeetan gaztelaniaz ematen dituzte eskolak.

Unibertsitatez kanpoko goi mailako heziketa tekniko-rako irisgarritasunari dagokionez, bi aukera hauek bai-

zik ez daude: Sangarara barrutian Goi mailako Institutu Teknologikoa dago (prestakuntza abeltzainaren eta nekazaritzaren esparruko ekoizpenean) eta Checacupe barrutian Arte Ederren Goi mailako Ikastetxe Autonomoa.

Goi mailako hezkuntzara iristen diren herritarrei dagokionez, arrakala handia dago gizonen eta emakumeen artean: gizonen artean, % 13koa da goi mailako hezkuntzara iristen direnen ehunekoa; baina emakumeen artean % 3koa baizik ez da.

Goi mailako hezkuntzaren eskaintza guztiz apal horrek hein handiagoan eragiten die emakumeei, muga handiagoak daukate beren barrutietatik irteteko eta ikasteko. Beren aldetik, mutil gazteek hiribururantz edo heziketa hobea eta enplegua aurkitzeko beste hiri batzuetarantz egiten dute.

Ikastetxeen eta Tokiko Gobernuen eta Komunitateetako Agintarien arteko harremanak eta baterako lanak funtsean hezkuntzaren kudeaketarekin berarekin dute lotura; hortaz, zailtasunen bat sortzen denean



Familiek astoak dituzte beren produktuak garraiatzeko lagungarri (Zabalketa)

esku hartzen dute eta laguntzen diote elkarri, esate baterako, irakasgai jakin bat emateko irakasleak kontratatzea eskatzen denean laguntza batzuk bideratzen dituzte garraioa eta elikadura ziurtatzeko eta ikasleek eskola horietan –irakurmena lantzeko, arazo matematikoak askatzeko, musika ikasteko eta abar– parte hartzeko aukera izateko. Komunitate batzuetan diruzko laguntza ematen diete ikaskuntzan nabarmentzen direnei, betiere beren egoeraren arabera, gisa horretan ikasteko ohitura sustatzeko eta motibatuzko.

3 barrutietan bada **osasun etxe bat**, barrutietako hiriburuetan daude. Hortaz, haietara iristeko, gutxi gorabehera 30 minutuz ibili behar dute, batez beste, komunitateetan bizi direnek, baina badira oinez bi ordutara dauden komunitateak ere.

Osasun etxe horietan ez dago sendagile espezializaturik, obstetrixian eta erizaintzan prestatutako 3 lagun izaten dira. Ekipamenduari dagokionez, oinarritzko tresnak baizik ez dituzte, ez dute esterilizatzeko ekiporik, ez inkubagailurik, ez diagnostikoak egiteko

ekiporik (erradiografia, ekografia, etab.), ez ekipo informatikorik. Egoera horren ondorioz, soilik kalte arinak dauzkatenek baizik ezin zaie arreta ematen, soilik botika generikoak eman dakizkieke, eta kasu larriak gertatzen direnean Sicuani eta Cusco bezalako hiri handiagoetako ospitaleetara eramaten dituzte eriak; ospitale horiek urrutira daudenez, erri batzuk hil egiten dira bidean.

Lan eremu honetan identifikatzen den gaixotasun garrantzitsuenetako bat da haurrak kolpatzen dituen desnutrizioa eta malnutrizioa, izan ere, beren dietan funtsezko osagai batzuk falta dituzte: 5 urtetik beherako haurren % 47k desnutrizio kronikoa bizi dute. Era berean, parasito eta beherako arazoak izaten dira higienea eskasa delako oso; eta oso arruntak dira muturreko hotzak eragindako arnasketa gaitzak. Emakumeak kaltetzen dituztenak dira beste osasun arazo garrantzitsu batzuk; izan ere, haurdunaldian zehar eta erditzeko garaian jarraipen eta arreta eskasa dago, eta bikotearen aldetik tratu txar fisikoak eta psikologikoak jasaten dituzte. Arazo hori agerikoa



Nekazari familiek abereen laguntzarekin jarraitzen dute beren lurak lantzen (Zabalketa)

den arren, tokiko gobernuek halako erresistentzia jartzen dute Haurrak eta Nerabeak Babesteko Udal Bulegoa (Defensoría Municipal del Niño y Adolescente, DEMUNA) abian jartzeko, erakunde hori baita indarkeria familiarraren kasu horiei erantzuteko eskumenak dauzkan erakundea.

Bada errepide bidezko **garraio** publikoko **zerbitzu** bat barrutietako hiriburuetatik kanpoko aldera, baina ez dago komunitateen arteko garraio publiko erregularreko zerbitzurik, eta ondorioz, oinez ibili ohi dira komunitateetako biztanleak batetik bestera. Familia gutxi batzuek baizik ez dute lekuz aldatzeko ibilgailu partikularren bat (motozikleta, motokarroa, autoa, kamioneta edo bizikleta), eta familien % 90ek astoz garraiatzen dituzte beren lurrek emandako uztak.

Telekomunikazioei dagokionez, hainbat operatzailek eskaintzen duten telefonia mugikorreko zerbitzua dago hala hiriguneetan nola komunitateetan, baina orografia malkartsua denez eta seinalea sarri askotan ahula izaten denez, estaldurak huts egin ohi du ez gutxitan.

Familiei iritsi egiten zaie telebistaren seinalea, hainbat kate ikusteko aukera dute, kate horiei esker jakiten dute zer gertatzen den toki, nazio eta nazioarte mailan. Internet zerbitzuari dagokionez, bada zerbitzu hori 3 udaletan, baina soilik agintariek eta funtzionarioek erabili dezakete. Herritarrek Internet erabili dezakete hirietako lokal publikoetan ordainduta, hori bai, soilik bi barrutitako hiriburuetan, Acopian eta Checacupen.

Jarduera ekonomikoa

Ekonomikoki Jardunean izan daitezkeen biztanleak (15 eta 64 urte bitartekoak) guztizko biztanleen % 70 dira, eta horietatik % 80 nekazaritzari eta abeltzaintzari emanak bizi dira, nola gizonezkoak hala emakumezkoak.

Laborantzari dagokionez, batez ere babak, artoa eta patata lantzen dituzte bai elikatzeko bai soberakinak saltzeko. Gutxiago lantzen dituzte zalkea, artatxikia, garagarra eta barazkiak.



Emakume nekazaria artaldea zaintzen (Zabalketa)

Familiaren baitan dagoen elikagaien aurreko eskaeraren arabera lantzen dituzte gai horiek; eta soberakin urriak tokiko azokan saltzen dituzte gero beste produktu batzuk erosi ahal izateko.

Nekazaritza oso modu tradizionalen garatzen dute, lanabesak oso oinarritzakoak dira eta jende askok jarduten du beharrean. Gainera, klimaren faktoreen mende dago nekazaritza, oso kaltebera da izotzaldietan, txingorra denean edo lehortekak zein uholdeak izaten direnean, halakoek oso eragin txarra dute nekazaritzaren ekoizpen mailetan. Ondorioz, alde handiak izan daitezke hektareako uzten errendimenduak sasoi batetik bestera.

Abeltzaintzari dagokionez, abelgorriak, ardiak, akuriak, txerriak, zaldiak eta hegaztiak bezalako espezie etxekotuak hazten dituzte, eta llamak eta alpapak goi lurretan. Ale gutxi batzuek edo hamarnaka batzuek osatzen dituzte animalia talde horiek. Gaur egun esnea

ematen duten abelgorriak eta akuriak dira familia eta merkataritza mailan garrantzitsuenak, tokiko eta eskualdeko azoketan sarri eskatzen dituztelako horrelakoak eta, gainera, halakoak ekoizten dituzten familien beren proteina mailako beharrak asetzen dituztelako.

Abeltzaintzari lotutako jarduerak burura eramateko, familiek batez ere herri lurretan dauzkaten larreak eta ura aprobetxatzen dituzte. Gaur egun, familiek berek badakite ekoizpena hobetzea mugatzen duen arazo nagusia aipatu bi baliabideen okerreko erabilera eta okerreko kudeaketa dela, horregatik ari dela ekoizpena gero eta urriagoa izaten. Bazka lurrei dagokienez, lurrak txandaka erabiltzen ez direnez, lurzoru horiek txirotzen ari dira. Eta urari dagokionez, ureztaketa grabitatearen bidez bideratzen denez, alferrik galtzen dira ur kantitate handiak.

Familiek ekoizpen mailan topatzen dituzten mugetatik beste batek abelgorriak eta akuriak hazteko gaitasun

2 Landareen oinetan lurra jartzeko ekintza, landareari sendotasun handiagoa emateko, sustrai berriak hazteko eta hezetasunari luzaroagoan eusteko.

tekniko mugatuekin eta beren produktuen merkataritzarekin du zerikusia. Nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak errentagarritasun txikia eskaintzen dute, ondorioz txikiak dira diruzko sarrerak, eta nekazari familia hauek bizi duten txirotasun egoera, zenbaitetan muturreko txirotasun egoera, eragiten du horrek guztiak.

Ekoizpenari emandako familia batzuk elkarteetan bildu dira arlo hau sustatzeko eta beren bizi kalitatea hobetzeko. Aurrekontu motaren bat gobernatzen duten elkarteak dira ongien funtzionatzen dutenak eta lorpen handienak egiten ari direnak. Aurrekontu sailak elkartekideek egiten dituzte, dirua biltzeko ekintzak eginez edo dirua funts publiko nahiz pribatuetatik lortuz. Baliabide horiek azpiegiturretan inbertsioa egitea ahalbidetzen diete, esate baterako, ukuiluak eraiki ditzakete edo abereak eros ditzakete. Elkarte horiek badituzte ahulezia batzuk, esate baterako ongi antolatze eta barne funtzionamendu egokia bideratzeko arazoak; gainera, tokiko azoken erakarria eta bizitasuna apalak dira oso, eta oso eskasa da koordinazioa komunitateetako agintariekin eta tokiko gobernuarekin.

Gizonek eta emakumeek egiten duten lanari dagokionez, nekazari familietan emakumeek eta gizonek berdin lan egiten dute arlo guztietan: lur eremua prestatzeko lanetan (luberritzean, sastrakak kentzean eta landare hondakinak ateratzean), ereinaldian, aporqueri deritzen lanean eta uzta biltzekoan. Abeltzaintzari dagokionez, emakumeek akuriak hazten dituzte, artzaintzaz arduratzen dira, esnea jezteaz eta ganadua elikatzeaz; gizonak, berriz, abelgorriak hazten dituzte, euren esku dago abereen osasun eta ugaltze tratamendua.

Ekoizpen jardueretan esku hartze handia duten arren, emakumeen lana ez da lan gisa aitortua, lan lagungarritzat hartua da beti. Emakumeek aukera txikiagoak izan dituzte behar bezala prestatzeko, eta ondorioz, prestakuntza maila txikiagoa dute kudeaketa tekniko eta merkataritza esparruko kudeaketa egokia bideratzeko. Emakumeen aurkako egoera horren arrazoiak bi dira: alde batetik, denbora gutxi dute



Caritaseko langile teknikariak komunitateko batzar batean
(Zabalketa)

familia eta komunitate mailan karga handia dutelako; eta bestetik, bikoteen laguntzarik ez dutelako jasotzen edo oso laguntza txikia jasotzen dutelako, eta horrek zuzeneko eragina du emakumeen autoestimuan. Bestalde, gizonen esku daude familia mailako erabaki estrategikoak, alde batetik gizonek ez dutelako emakumea aintzat hartzen, eta bestetik, emakumea ez delako gai sentitzen erabaki jakin batzuk hartzeko, berriz ere ez dagoelako horretarako gizona bezain prestatuta.

Emakumeek ekoizpenaren esparruan dauzkaten arazoak arazo, aldaketa txiki batzuk gertatzen ari dira egun, animalia txikiak hazten eta merkaturatzen hasiak dira, eta horri esker autonomia ekonomiko bat ari dira lortzen.

Lurraren jabetzari dagokionez, komunitatearen lurrak diren arren eta lur horiek familiek erabiltzen dituzten arren, familia bakoitzeko komuneroaren izenean daude. Herri handiagoetan hasiak dira lurrak bikotearen izenean bereizten.

2. Taula: pertsona kopurua kargu eta sexuaren arabera
Komunitateko Zuzendaritza Batzordean

Barrutia	Komunitatea	Komunitateko Zuzendaritza Batzordea		
		Gizonezkoak	Emakumezkoak	Denetara
Acopia	Acopia	6	1	7
	Santo Domingo	6	2	8
	Tactabamba	4	3	7
Sangarara	Sangarara	6	2	8
	Marcaconga	7	1	8
	Union Chahuay	6	2	8
	Yanampampa	5	3	8
Checacupe	Occobamba Norte	4	3	7
	Occobamba Sur	4	2	6
	Cangalli	5	2	7
	Chari	6	1	7
	Llocllora	7	0	7
	Palccoyo	7	0	7
Denetara		73	22	95
Ehunekoak		%77	%23	%100

Iturria: Elkarhizketak komunitateetako agintariekin. Urtea: 2014

Gizarte eta administrazio antolaketa

Lurralde unitatetan finkatutako pertsona taldeek osatzen dituzte NEKAZARIEN KOMUNITATEAK. Gizarte eta kultura mailako arau eta parametro jakin batzuen arabera daude antolaturik, kideek betebeharrak eta eskubide komunak dituzte, betiere beren lurraldean dauzkaten natur baliabideen ustiakuntzaren eredutik abiatutik.

Antolaketa mota hori espainolak iritsi aurrekoa da, Andeetako familiek bizi dituzten baldintza fisiko eta gizarte baldintza zailei aurre egiteko sortu zen, antolaketa mota horrek beren bizi baldintzak eta bitartekoak bermatzeko aukera ematen baitie.

Nekazari komunitateek dauzkaten baliabide eta estrategia nagusiak estu lotuta daude burura eramaten duten esku hartzearekin berarekin eta auzolanarekin, esate baterako, ekoizpenari emandako lanetan, azpiegi-

tura obretan, gizarte ekintzetan eta besteetan; guztiek dute helburu herritar guztien garapena bultzatzea.

Hiru mailatan antolatutako gobernu egitura dute nekazari komunitateek: komunitateko batzarra, komunitateko zuzendaritza batzordea eta batzorde espezializatuak.

Komunitateko Batzarra osatzen dute formalki halakotzat hartutako komuneroek. Komunitatearen baitan agintaritza goreneko organoa da, komunitatearekin eta baliabideen administrazioarekin eta kudeaketarekin zerikusia duten erabakiak onartzeko azken erantzulea.

Komunitateen estatutuaren arabera, adineko (18 urtetik gora) herritar guztiek (gizonezko nahiz emakumezko) dute komunitateko kide gisa errolatzeko betebeharrak. Familia bakoitzean errolatutako pertsonetatik soilik gizonezkoek dute komunero titulua jasotzeko eskubidea, gizonak hartzen baitira "etxeke nagusitza". Emakumeak komunero titulua jasotzen dute soilik alargunak direnean eta/edo ama ezkongabeak. Ondorioz, komunitateko batzarrean gizonak dira gehien-gehienak, biltzen direnen % 80 dira batez beste, eta batzarretara bertaratzaren diren emakumeak ikusle soil bihurtzen dira, ez dute modu aktiboan eta positiboan parte hartzen.

Komunitateko Batzarra hilero bildu ohi da, eta batzarra egiten dute gutxienez kideen erdia gehi bat biltzen denean, horixe dute gutxienezko quoruma. Erabakiak demokratikoki hartzen dituzte, pertsona bat boto bat, gehiengo soilaz (emandako botoen % 50 gehi bat).

Komunitateko Zuzendaritza Batzordea da komunitateko gobernu eta administrazio organo betearazle erantzulea, 7 lagunek osatuta dago: Presidente, Presidenteordea, Idazkaria, Diruzaina, Fiskala eta bi Bozeramaile.

Komunitateen baitan **Batzorde Espezializatuak** daude. Batzorde horietako batzuk iraunkorrak dira, esate baterako, ura edo basoak bezalako natur baliabideak kudeatzeko dira, eta bestetik aldi baterako izaera duten batzorde espezializatuak daude, jardura



Nekazari familiak beren produktuak erakusten (Zabalketa)

edo eginkizun espezifiko bat bideratzeko dira, esate baterako, saneamendua bideratzeko, lurrak esleitzeko, abeltzaintza kudeatzeko, eta abar.

Ahulezia sorta bat identifikatzen da nekazari komunitate hauetako barne antolaketan: alde batetik, komunitateetako agintariek aitzindaritza gaitasun txikia dute erabakiak hartzeko guneetan parte hartzeko eta tokian tokiko hitzarmenak bultzatzeko eta sustatzeko. Izan ere, ez dituzte aitzindaritza lanak egiteko beharrezkoak diren ezagutzak, eta denbora gutxi dute beren lur sailak ere landu behar dituztelako eta abereak gobernatu behar dituztelako.

Bestalde, nekazarien komunitateek ez dute kudeaketarako tresnarik, edo oker erabiltzen dituzte halakoak izanez gero, zailtasunak dauzkate esate baterako barne kontabilitatea egiteko. Eta badira beste mota bateko alderdi batzuk ere, esate baterako ikusmen mugatua eta planifikaziorik eza epe luzera; ondorioz, berehalako emaitzak lortzeko ekimenak lehenesten dituzte,

adibidez, azpiegitura lan txikiak, gaitasunak indartzeko ekimenetan inbertitu beharrean.

Nekazari komunitateen gaitasunetan eragiten duen beste alderdi bat da emakumeek komunitatearen baitan erabakiak hartzeko orduan duten parte hartze mugatua, bai kopuruaren aldetik bai betetzen duten kargu motaren aldetik. Komunitateko arauak ezarritako murrizketak, emakumeen gaitasunen aurreko gizonen gutxiespenak eta emakumeen parte hartzearen aurreko gizonen erresistentziak dira egoera horren erantzuleak. Era berean, aintzat hartzekoak dira emakumeen eginkizunen karga (ekoizpen eta ugaltze mailako eginkizunak) eta emakumeen gaitasun eta prestakuntza eskasak komunitatearen garapenaren kudeaketari begira. Eta alderdi sorta horri emakumeen autoestimu apala eta dauzkaten eskubideen aurreko ezagutzarik eza gehitu behar zaizkio.

Azken urteetan komunitateko bizitzan erabat murgiltzeko eta aukeren berdintasuna eta zuzentasuna lortze-



Bi emakume prestakuntza saio batean (Zabalketa)

ko xedean bideratutako kontzientziazio eta prestakuntza lanetik abiaturik, komunitateen estatutuak aldatu ahal izan dira emakumeen parte hartzea bermatzeko; ondorioz, pixkana-pixkana handiagoa da emakumeen presentzia, gero eta kargu garrantzitsuagoak ari dira betetzen; diruzainen eta bozeramaileen artean 1 ez baizik eta 2 dira egun, eta beste 4 emakume ari dira idazkari eta presidenteorde gisa. Hala eta guztiz ere, lanean jarraitu beharra dago komunitateetako egitura horietan, eta lanean jarraitu beharra dago familietan eta gizarte eta kultur praktikan izaten diren estereotipoen aurre egiteko.

Parte hartze ahul bezain eskas hori ez da soilik emakumeen artean gertatzen, baita herritarren artean ere oro har, gazteak barne; izan ere, agintariek berek herritarrek biltzeko gaitasun eskasa dute, ez dira herritarrekin adostutako akordioak ixteko gai.

Lehen ere adierazi dugun bezala, **EKOIZPEN ELKARTEAK** daude komunitateetan. Elkarte formalak dira, erregistro publikoan izena emanda daude eta bakoitzak bere estatutuak dauzka.

Zuzendaritza batzorde batek ordezkatzeko dituzten elkarte horiek, bazkideez osatuta dago batzordea, eta aldiro biltzen dira administrazioaren alorreko kudeaketa lanak egiteko, hainbat lan egiteko eta beren ekoizpen arloarekin loturiko jarduerak burura eramateko.

Bazkideek berek eta udalak eta beste erakunde publiko zein pribatu batzuek eskuarki espezieetan (oro har animalia ugalkorrek eta materialak emanez) egiten dituzten ekarpenetatik iristen dira dauzkaten baliabide ekonomikoak. Oraindik betiko moduan merkaturatzen dituzte produktuak, nork bereak, ekoizpen erregistrorik erabili gabe, izandako salmentei buruzko kontu libururik gabe edo kontabilitateari buruzko beste erregistro motaren bat erabili gabe. Kasu gutxi batzuetan, bazkideen artean banatzen dituzte burura eramandako jardueretatik lortutako irabaziak.

Elkarte horietatik asko eta asko ahul dira; izan ere, urria da oso beren enpresa, merkataritza eta erakunde mailako ezagutza nahiz gaitasuna, eta ez dute laguntzarik jasotzen tokiko gobernuaren aldetik, ez baitago denen artean sustatu beharreko ekimen hauek bideragarri egingo duen nekazaritza eta abeltzaintza jarduerak sustatzeko politikarik.

Hona hemen gaur egun badiren ekoizleen elkarte batzuk: gizenetako azientaren ekoizleen elkarte, esne behien ekoizleena, akuriena, alpakena, artisauena, esnekien ekoizleena, ardi kreoleen hazleena eta arrantzaleena

3 barrutietako bakoitzean badira **EMAKUMEEN ELKARTE** espezifikoak:

Sangarara Barrutiko Emakumeen Elkarte (*Asociación Distrital de Mujeres Sangarará, ADIMSA*). Gutxi gorabehera 160 emakumek osatua. Animalia txikiak hazita, ekimen ekonomikoak sustatzea dute xede. Horretarako, lan bilerak egiten dituzte eta ongi prestatzeko tailerretan parte hartzen dute.

Checacupe Barrutiko Emakumeen Federazioa (*Federación Distrital de Mujeres Checacupe*). Emakume nekazarien giza eskubideen babesa sustatzen du, eta

barrutiko 16 komunitateetako emakume nekazariak ordezkatzeko dituzte esku hartze mugatua du elkarte honek erabakiak hartzeko guneetan, batez ere antolaketa maila eskasa duelako, beren buruzagien aitzindaritzak gaitasuna ahula delako eta tokiko agintarien eta zuzendarien laguntza eta sostengu txikia jasotzen duelako. Hala eta guztiz ere, barruti mailan eraginkorra eta garrantzitsua denez, ordezkaritza maila handia du, eta bere jendea mugiarazteko gaitasun handia du, batik bat zaugarritasun egoeretan eta beren giza eskubideak urratzen direnean.

Acopia Barrutiko Emakumeen Elkarte Zentrala (*Central de Organizaciones de Mujeres del Distrito de Acopía*). 5 urtetik beherako seme-alabak dituzten ama taldeek osatuta dago erakunde hau. Emakumeak prestatzeko, akuriak hazteko lanetan laguntzeko eta baratze ekologikoak antolatzeko lanetan parte hartzen dute.

Une honetan hainbat proiektu dituzte esku artean burura eramateko, eta horretarako finantzazio pribatua zein publikoa ari dira lortzen. Esate baterako, urtero parte hartzen dute aurrekontu parte-hartzailean, eta 2014an 30.000 Nuevo Sol lortu zituzten etxebizitza osasungarriak sustatzeko; horretarako, konketak eta beste batzuk instalatuko zituzten beren higieena zaintzeko. Era berean, beren gaitasunak (autoestimua, eskubideak, aitzindaritzak) indartzeko eta beren diruzko sarrerak hobetzeko proiektuak (gastronomia, artisautza) eramaten dituzte burura.

Baso Esnearen aldeko batzordeak (*Comités de Vaso de Leche*). Emakume hauek elikagaiekin laguntzen diete beren komunitateetako talde zaugarriei, esate baterako ama haurdunei eta bularra ematen ari direnei; haur eta nerabeei; eta muturreko txirotasun egoeran bizi direnei, besteak beste.

Familia Ekoizleen Elkartei eta Emakumeen Elkartei dagokienez, bistan da antolaketa, parte hartze, hitzarmen eta berdintasun gaietan beren ezagutzak hobetu behar dituztela beren aitzindaritzak gaitasuna eta eragin handiagoa izateko gaitasuna hobetuko badira.

3. taula Pertsona kopurua kargu eta sexuaren arabera 3 udalteeetan

Udalerria	Kargua	Gizonezkoak	Emakumezkoak	Denetara
Acopía	Alkatea	1		1
	Zinegotziak	4	1	5
	Funtzionarioak	20	8	28
Sangarara	Alkatea	1		1
	Zinegotziak	3	2	5
	Funtzionarioak	15	7	22
Checacupe	Alkatea	1		1
	Zinegotziak	4	1	5
	Funtzionarioak	43	22	65
Denetara		92	41	133
Ehunekoak		%69	%31	%100

Iturria: Udaleetako Gobernuak. Udaleetako langileen zerrenda. Urtea: 2014

Gainera, egiaztatuta dago ez dutela ezagutzen eta ez dutela erabiltzen elkarte bat kudeatzeko tresna teknikorik, eta garapenaren aurrean duten ikuspegia oso epe laburrekoa dela. Bestalde, tokiko gobernuek eta nekazarien komunitateek ez dute aintzat hartzen elkarte horiek egiten duten lana; izan ere, ez da inolako lan koordinaturik egiten hiru eragile talde hauen artean: tokiko gobernua, nekazarien komunitateak eta oinarrizko gizarte elkarteak (ekoizpen elkarteak eta emakumeenak).

TOKIKO GOBERNUA da Estatuak barruti mailan duen ordezkaritza nagusia. Alkate batek eta 5 zinegotzik osatuta dago, 4 urtean behingo hauteskunde prozesu baten bidez aukeratzen dira horiek.

Beraz, 3 barrutietako 3 Tokiko Gobernuak daude Caritasen eta Zabalketaren jardura esparruan: Checacupe, Sangarará eta Acopía; batez beste 2 eta 6 milioi Nuevo Sol bitarteko aurrekontua erabiltzen dute urtero.

Peruk une honetan bizi duen deszentralizazio prozesuan protagonismo berri eta handiago bat dute Tokiko Gobernuek, barrutiak eta probintziak garatzeko sustatzaileen rola aitortzen baitzaie eta, ondorioz,



Bilera agiria idazten (Old Port Films)

eginkizun hori betetzeko eskumen berriak eta baliabide ekonomiko berriak eman baitzaizkie. Gauzak horrela, une honetan Tokiko Gobernuak dira beren lurraldeko ekonomia, gizartea, kultura eta ingurumena garatzeko proposamenak diseinatzen eta kudeatzen dituztenak.

Funtzionatzeko eredu berri honetan tresna berriak eta herritarrek parte hartzeko guneak antolatu dira tokiko kudeaketa publikoa bideratzeko. Tresnei dagokienez, Barrutia Garatzeko Plana da haietako bat; plan horrek herritarren premietan eta eskaeretan oinarritutako plangintza estrategikoa du xede, eta herritarren ongizatea eta bizi kalitatea hobetzeko programak eta proiektuak lantzeko gidarena betetzen du.

Bestalde, **Aurrekontu Parte-hartzaileen** tresna dago; urtean behin, beren proiektuak aurkez ditzakete komunitateek beren ekoizpen elkarte, emakumeen elkarte eta beste elkarte batzuen bidez.

Espazio berriei dagokienez, honako hauek dira garrantzitsuenak: **Barrutiak Garatzeko Kontseiluak**

(*Consejos de Desarrollo Distrital*), aurrekontu parte-hartzaileen prozesuaren arduradunak; **Zaintza Batzordeak** (*Comités de Vigilancia*), garatzeko prozesua bera zaintzeaz eta adostutakoak betearazteaz arduraten direnak; eta **Hitzarmen Mahaiak** (*Mesas de Concertación*), ekonomia eta gizarte garapena bultzatzeaz arduraten direnak gobernuen eta elkarten ahaleginak biltzeko eta herritarren aldeko proiektu bateratuak burura eraman ahal izateko.

Funtzionatzeko prozesu berri guztietan bezala, ahulezia edo gabezia batzuk topatzen ditugu, esate baterako, administrazio maila desberdinen artean (nazio, departamentu eta barruti mailakoak) izaten diren harremanak, euren arteko alde politikoak handiak izanik interes desberdinak izaten direlako, baliabideei erabilera desberdina ematen zaielako eta botereari eusteko dinamika batzuk gauzatzen direlako.

3 barruti hauetan lehendik kudeaketa bertikala izan da nagusi, lagunak lehenetsi dira, eta beraz, tokiko agintariek halako erresistentzia jartzen diote herritarrek parte hartzeko guneak sustatzeko ekimenari, beldur baitira hala egitera ez ote diren haienganako gatazka mailak handituko; izan ere, agintari horiek boto emaileen ehuneko txiki batzuekin iristen dira kargu horietara. Udal agintari horiek ez dute tokiko kudeaketa hitzartuaren eta parte hartzaileen onuren berri.

Beldur horren oinarrian demokraziaren funtsei buruzko ezagutza eza ere badago, eta ondorioz, ez da bultzatzen herritarrek agintari horien lana zaintzerik eta fiskalizatzerik.

Udal agintariek ez dute legez bultzatu beharreko garrantasunaren eta informazio publikorako sarbidearen mekanismoak arautzen dituen esparru arauemailea, eta ez dute behar-beharrezkoa duten prestakuntzarik ez eta hori guztia burura eramateko dirurik ere.

Hitzartzeko borondate politiko ahul horrek zuzeneko lotura du udal agintarien eta komunitateetako agintarien arteko ulermen maila eskasarekin, eskuarki ez dira harreman errazak izaten, eta kasu batzuetan arerio politikoak ere badira. Legeak eta



Acopia Barrutiko Udaletxeko fatxada (Zabalketa)

bakoitzaren eskumenak zein diren ez dakitenez, halako nahasmenduak sortzen dira eta ondorioz tentsioak izaten dira erantzukizunen eta udalerriari edo komunitateari dagozkien jardueren artean. Gainera, eskumenak deszentralizatzeko esparrua egon badagoen arren, banaketa eta transferentzia hori era mugatuan egiten ari dela egiaztatu dugu.

Herritarren artean informazio eza da nagusi, ez dute beren eskubideak erabiltzeko informaziorik, eta ez dute herritar diren aldetik beren betebeharrak betetzeko informaziorik ere.

Erakunde arloko urrakortasun horren ondorioz, parte hartzeko guneak ez dira jardunean, ez daude eguneratuta, eta testuingurutik kanpora daude tokiko garapena planifikatzeko tresnak.

Funtzionarioen etengabeko txandakatzeak ez du herritarrek parte hartzeko gune horiek sendotzea ahalbidetzen, halako mesfidantza eragiten du herritarren artean, zaildu egiten ditu koordinazioa eta

komunikazioa, eta proposatzen diren proiektuak epe laburrekoak izatea eragiten du.

Gainera, aurrekontu parte-hartzaileetan aurkeztutako proiektu batzuk ez dira burura eramaten arrazoi administratiboak eta teknikoak tarteko, edo aurrekontuak murriztu egin direlako.

Azaldutako ahulezien ondorioz, parte hartze txikiarekin eta hitzarmen maila apalarekin landu dira orain arte abian jarri diren tokiko garapen planak, eta beraz, ez dituzte oro har herritarren premiak eta interesak jasotzen eta bereziki emakumeenak, eta emakumeak dira, hain zuzen ere, erabakitze guneetan baztertuen daudenak.

Bi proiektu berezi: elkarrekin eta emaitzen arabera aurrekontua

Peruko Gobernu Zentralak bi proiektu bultzatzen ditu barruti mailan aplikatzeko: **ELKARREKIN** programa da

haietako bat, bertan nekazarien komunitateek, tokiko gobernuek, osasun etxeek eta ikastetxeek parte hartzen dute, eta honako zerbitzu hauek eskaintzen dira programa horren bidez:

- Arreta integrala 0 eta 5 urte bitarteko haurren osasunari eta nutrizioari.
- Arreta integrala emakume haurdunen osasunari.
- 6 eta 14 urte bitarteko haurren matrikulazioa eta eskolaratzearen gaineko jarraipena.
- 5 urtetik beherako haurren nortasun agiriaren tramitazioa.

EMAITZEN ARABERAKO AURREKONTUAK du izena estatuaren bigarren proiektuak. Horren bidez, baliabide ekonomikoak ematen zaizkie tokiko gobernuei udal kudeaketa modernizatzeko eta hobetzeko. Funts horiek aurrez finkatutako helburuak (esate baterako, desnutrizio kronikoa murriztea eta haurren nortasun erregistroa emendatzea) lortzen dituzten gobernuei baizik ez zaizkie ematen.



Jostailuak eta barreak partekatzen (Zabalketa)

Peruko Hegoaldeko Caritasen Sareak eta Zabalketa Elkartek landutako “Tokiko garapena hitzartzeko herritarren parte hartzea” programan (FOCAD PGM 2014/BA001) jasotako edukitik abiatuta osatu da 1. Koaderno hau. Bestalde, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak ere finantzatua da programa hau.